

Urte askoan

Itzea URKIZU
ARSUAGA

Idatzi nahi nuke testu bat behin eta berriz orraztua. Ortografiari eta kohesioari erreparatuz berri-rakurritakoa, eta, figura literario-ren batean fokua jarrita, aberastasuna dariona. Idatzi nahi nuke gertakari orokorretatik bizitza pertsonaetik baino gertuago legokeen zerbait; erakuslehoan jarriko ez nindukeena.

Horretarako, ordea, sarriago zapaldu beharko nituzke patioa eta parkea ez diren bestelako plazak; lehen bezala, arretaz jarraitu albistegia; gain-informazioaren kontsumitzaile konpulsibo izan, aspaldiko partez. Idatzi nahi nukeelako orraztutako testu bat, baina... nola orraztu hitz batzuk, ilea ganoraz atontzeko astirik ere ez dudanean?

Ideiak erraiak baino gehiago zeharkatzen dizkidaten testuak idatzi nahi

nituzkeela pentsatu izan dut maiz, baina ezin dut. Hortik baino ez da irteten gaia, sentimendua, pultsua, tinta, tekla sakatzeko indarra. Diafragma, sabela, kopeta estutzen didan hori hitz bilakatura bakarrik aurkitzen diot zentzua honi; pertsonaetik zerbait politikoa esan dezakedala sinetsita.

Eta, tira, Karmele Jaioren “Maitasun kapitala” irakurri-tolestu-azpimarratu, nerabezarotik hona hozkatu ditudan maitasun erromantikoaren amu guztiak gaitzetsi eta Uxue Alberdi argitaratzekoa den “Hetero”-ren zain egonagatik ere, gaurkoa eskaini nahi nioke bidelagun dudanari.

Gaur urtebetetzea duelako, batetik. Hau idazten ari naizen bitartean duela urtebeteko irudiak datozkidalako ere bai: erditze gelan, minez ni, izerdiz be-

ra. Baina, batez ere, jendartean espazio handiagoa hartu beharko lukeelako haurrak izan ondorengo bikote bizitzaren gaiak. Meloi handi eta urtsu horrek.

Maskaldu egiten baita uztarri berera lotutako bi bururen tiraldia, 24 orduz harri berera lotuta daudenean. Instagrametik aparte, haur txikiekin bikote bizitzarik existitzen ote den galdetuko du zenbaitek. Galdera da ea prest ote gauden onartzeko bizitza hori bestelakoa izango dela. Zaintzan eta enpatian ardaztua, edo horretara iristeko saia-keren bueltan eraikia, behintzat.

Eskerrik asko zuri, egunetan luzee-na eta efemerideetan motzena izan den urte honetan, beti eskutik heldu didazulako. Izan dadila horrela urte askoan. •

Putreak nonahi

Miren AZKARATE
BADIOLA

Banco Santanderrek urte hasierarik onena izan du: 2.52 milioi irabazi ditu martxora arte, iaz baino %11 gehiago. “Espainiako bankuak 7.860 milioiko irabaziak izan ditu”. “Caixabank-ek 1.005 milioi irabazi ditu urteko lehen hiruhilekoan, iaz baino %17 gehiago”.

Horrelako lerroburuak irakurri eta irakurri nire harridura eta haserrea pareko dauden honetan, balantzaren beste aldean horrelakoak: “Haur jaioberri bat duen familia bat etxegabetze arriskuan dagoela salatu dute Gasteizen”.

“Azken 10 urteetan frutaren kontsumoa ia %20 jaitsi da Hego Euskal Herrian. Fruta %65 garestitu da 2014tik 2023ra”. Bi adibide txiki baina era berean argigarri, diruaren banaketa ez-orekatua erakusten digutenak.

Honek argi erakusten du aberastasuna gutxi batzuen eskuetan dagoela, eta bitartean, gehiengoak -eta gehiengo horren barruan zati zaurgarri handi batek (gero eta handiagoa denak)- bizitza duin bat izateko ahaleginak eginda ere gorriak ikusten ditu hilabete bukaerara iristeko.

Ez da berria orain esaten ari naizena, urtero errepikatzen diren datu eta lerroburuak dira. Baina honek ez du esan nahi berriz ere lehen lerroa ekarri behar ez dugunik gaia. Batzuen aberastasunak besteen pobrezia dakar, aspaldiko leloa da, baina arrakala hori gero eta handiagoa da eta arrakala horretan gero eta gehiago dira zailtasun handiak dituztenak oinarritzkoak diren giza eskubideak aseta izateko, dela janaria, etxebizitza, hezkuntza edo osasuna.

Bankuek funts putreak dituzte, baina putreak ez daude soilik bankuetan. •